

1914ko hauteskunde-kanpaina

Eskualduna astekarian

Eneko Bidegain, Andres Gostin*

Doktorea. Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Hezikom ikerketa-taldeko kidea
*Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Hezikom ikerketa-taldeko kidea

Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren 1914an, eta Ipar Euskal Herriko *Eskualduna* astekariak bertako hautagaien kanpainen jarraipena nola egin zuen aztertzen du artikulu honek. Hauteskunde-kanpaina haren berezitasuna da itzal handiko euskal diputatu baten lehen kanpaina izan zela, Jean Ibarnegarairena. Astekariak mezu alderdikaririk zabalitzen ote zuen eta propaganda egiten ote zuen ikertu da, eduki-azterketa kualitatiboaren metodologiaren bidez. Astekariak hautagai errepublikazaleen kontrako mezuak zabaldu zituen, erlijio-eztabaidaren haritik, bereziki. Bestetik, irakurleei zuzenean zuzendu zitzairen Jean Ibarnegarai hautagai zuriaren alde bozka zezaten eskatuz.

GAKO-HITZAK: Ibarnegarai · 1914ko hauteskundeak · *Eskualduna* · Estatu-Eliza bereizketa.

The election campaign of 1914, in the weekly *Eskualduna*

This article is about the treatment of the French parliamentary elections in 1914 and the campaign in the Northern Basque Country by the Basque newspaper *Eskualduna*. The particularity of this election campaign was that it was the first campaign of the celebrated deputy Jean Ibarnegarai. This study analyzes, by qualitative contents analysis, if the message of this newspaper was partisan and if the journalists wrote more propaganda than journalism. *Eskualduna* had campaigned against the republican candidates, particularly about the religious theme, and requested the vote for Jean Ibarnegarai.

KEY WORDS: Ybarnegaray · 1914's elections · *Eskualduna* · State-Church separation.

Jasotze-data: 2013-10-23. *Onartze-data:* 2014-01-31.

1. Sarrera

Ipar Euskal Herriko diputatu batzuen itzala ez da berehala itzaltzen, ez itzaltzekotan. Arrasto handienetarikoa utzi duena, eta oraino ere ospea galdu ez duena, Jean Ibarregarai¹ da, nahiz eta ehun urte iragan diren diputatu hautatu zutenetik. 1914ko apirilaren 26ko Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituen, Baxenabarre eta Zuberoa hartzen zituen Mauleko hautesbarrutian². Bastida, Bidaxune, Donibane Lohizune, Ezpeleta eta Hazparneko kantonamenduak hartzen zituen hautesbarrutian, aldiz, Léon Guichenné ordu arteko diputatuak irabazi zituen hauteskundeak. Biak «zuriak» ziren: Guichenné Action Libérale alderdiko diputatua eta Ibarregarai independentea (hastapenean).

Eskualduna astekariak hauteskunde-kanpaina hura luze eta zabal aipatu zuen, eta lan honen helburua da astekari hark Jean Ibarregarai eta Blaise Guéraguenen arteko lehiaren inguruko kanpaina hartaz eman zuen informazioari buruzko kazetaritza-maila neurtzea. Lan honen interesa da aztertzea, batetik, Ipar Euskal Herriak XX. mendean izan zuen politikari garrantzitsuenetariko baten lehen urratsak, eta, bestetik, garai berean Ipar Euskal Herrian zabalkunde eta eragin handia izan zuen astekari baten begirada eta jarrera. Hain zuzen ere, Ibarregarai eta *Eskualduna* ongi ezagutzeak anitz laguntzen du Ipar Euskal Herriko gizartearen ulertzen.

Testuinguruaren eta aurrekariaren atalean gogora ekarriko dugu zein zen Ipar Euskal Herriko mapa politikoa garai hartan, azalduko dugu zein zen *Eskualduna* astekariaren ildo editoriala eta aztertuko dugu orain arte zer landu den hauteskunde-kanpaina hartaz prentsak izan zuen tratamenduaz, Ibarregarai eta *Eskualduna*.

Testuingurua eta aurrekariak

Frantziako III. Errepublikako diputatu-bozak izan ziren 1914ko udaberrian: lehen itzulia apirilaren 26an, eta bigarrena maiatzaren 10ean. Ez dago hauteskunde-kanpaina hari buruzko ikerlan espezifikorik, ez Frantziako ikuspegitik, ez eta Ipar Euskal Herriko ere. Data esanguratsua da, ordea, Lehen Mundu Gerra lehertu aitzineko hauteskundeak izan zirelako, eta horrekin batera, XIX. mendeko politikatik zetozen gatazka eta eztabaida politikoen azken fasea izan zelako. Data horretaz harago begiratuz gero, Ipar Euskal Herriko edota Pirinio Behereak (Basses Pyrénées) departamenduko hauteskundearen historiari buruzko lan gutxi batzuk (Cuzacq, 1952; Micheu-Puyou, 1965) badaude, ordea.

Hauteskunde haietako izen nagusia Jean Ibarregarai zen, eta hartaz ere ez dago ia ikerlanik. Aurkitu ditugun bakarrak Bernard Menou-ren (Menou, 1972) eta Isabelle Bilbaoren (Bilbao, d.g.) tesinak dira. Oraino gelditzen da lan anitz egiteko, politikari haren bizitza, ibilbide politikoa eta eragina ikertzeko.

Lan honetarako aukeratu dugun bigarren protagonistaz, *Eskualduna* astekariak, zerbait gehiago ikertu da, nahiz eta ez dagoen ikerlan anitz. Lan berriena

1. Jean Ybarregaray, ortografia ofizialean.

2. <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/biographies/1889-1940/Lettre_Y/Pages de Y.pdf>.

Eneko Bidegainen tesia (Videgain, 2012) da, tesi horretan astekariaren historia egiten baitu, astekari hori aipatu edo landu duten aurreko lanak (Altzibar, 2004, 2005; Bidegain, 2009, 2010; Borda, 1984; Camino, 1994; Lafitte, 1971a) aberastuz.

Prentsak hauteskunde-kanpainak aipatzeko moduz, ordea, hainbat lan egin da, nahiz eta ez izan ikerketa honetan aztertu dugun garaikoak. Azken hamarkadetako hauteskunderi buruzkoak ez ditugu kontuan hartuko, XX. mendearen hasieratik hona politikaren mundua eta komunikabideena anitz aldatu direlako. XIX. mendearen hasierako Amerikako Estatu Batuetako hauteskunde-kanpaina bati buruzko prentsa politikoaren jarrera aztertuta dago (Ames eta Olson, 1963), batetik. Gaia hurbilagora ekarriz, 1936ko Espainiako hauteskunderiez Frantziako aldizkari kristauek izan zuten tratua ere ikertu zuen Buisán Gutiérrezek (2002). Bakarrak ez badira ere (Dahlem eta Mathes, 1989; Farré, 1999; Giraudou eta Poirrier, 2007; Isnenghi, 1985; Romay eta González, 2007), bi horiek hartu ditugu erreferentziazat.

Ikerketa-lerroak zehaztu eta ikerlanean berean sartu aitzin, hauteskunde haiei buruz eta *Eskualdunari* buruz ezagutzen dena gogoraraztea komeni da. Euskaldunek hiru hautesbarrutitan hautatu behar zituzten beren ordezkariak. Garai hartako mapa politikoa bi bloke nagusitan banatua zen: zuriak eta gorriak. Zuriak ziren Elizaren aldekoak eta oinarrian Errepublikaren aurkakoak; gorriak, aldiz, errepublikazaleak eta laikoak ziren.

Baiona, Miarritze eta Uztaritze biltzen zituen eskualdeko diputatua Joseph Garat zen; Baionako auzapez eta ofizioz abokatu hura 1910ean egin zen diputatu, Gauche Radicale (Ezker Erradikala) alderdiko kide gisa. 1914ko hauteskundeetan Parti Républicain Radical (Alderdi Errepublikazale Erradikala) alderdiko hautagai gisa aurkeztu zen. Parean ez zuen hautagai zuririk, eta 1914an ere irabazi zituen hauteskundeak. Bigarren hautesbarrutiak Bastida, Bidaxune, Hazparne, Ezpeleta eta Donibane Lohizuneko kantonamenduak biltzen zituen³. Hango diputatua Léon Guichenné zen, 1905etik hara. Errepublikazale aurrerakoi gisa aurkeztu zen lehen aldian, eta 1910ean Action Libérale alderdiko kide gisa. Gristinoak Errepublikara lerrokatzeko lanak egin zituen eskuineko alderdi hark. 1914ko hauteskundeak lehen itzulian irabazi zituen, erradikal sozialisten izenean aurkeztu zen Mendiondo Bidaxuneko auzapez eta medikuaren kontra. Ondoko bi hauteskundeak ere irabazi zituen, eta 1924an utzi zuen diputatu-kargua, ia 80 urterekin.

Berrikuntza eta gaztetasuna Uharte Garazitik zetorren. Baxenabarre eta Zuberoa biltzen zituen hautesbarrutiko hautagaia Jean Ibarnegarai abokatua zen, herri hartako auzapeza, «zuria». Haren parekoa, Blaise Gueraçague Donapaleuko hautagaia, «gorria». Biak gazteak ziren, eta biak abiatu ziren hutsik gelditu zen aulkiaren bila. Ordu arteko diputatu zen Pradet-Ballade ez zen berriz aurkeztu. Zentro eskuineko Républicain Progressiste alderdikoa zen; diputatu hura bere agintaldiko lehen urteetan «gorri»en alde zegoen eta azken urteetan «zuri»en alde.

Hauteskundeak Ibarnegaraik irabazi zituen lehen itzulian berean. Hastapenean ez zen talde politiko bateko kide, baina 1919an Entente Républicaine Démo-

3. Azpimarratu behar da kantonamenduak ez zirela beti orain bezala. Oraingo Hendaiako kantonamenduko herriak orduko Donibane Lohizuneko kantonamenduaren parte ziren.

cratique (Elkartze Errepublikazale Demokratikoa) alderdiko kide gisa aurkeztu zen. Talde hark ordu arteko alderdi andana bat bildu zuen. 1924an Union Républicaine Démocratique (Batasun Errepublikazale Demokratikoa) alderdiko diputatu izan zen, hura ere eskuin kontserbadorekoa. 1940an Pétain marexalaren Vichyko gobernuarekin bat egin zuen, eta ministro ere izan zen. 1942an utzi zuen diputatukargua. Bigarren Mundu Gerratik landa, ohore-kargu guztiak kendu zizkioten, okupazio-garaian alemanekin kolaboratzeagatik.

Ipar Euskal Herriko hiru hautesbarrutietatik bitan «zuriek» irabazi bazuten ere, Frantzian «gorriak» nagusitu ziren berriz ere, hots, errerepublikazaleak. Zuri-gorrien arteko gatazka hura bizi-bizia zen garai hartan, eta Euskal Herrian oihartzun handia zuen. Elizaren eta Estatuaren bereizte-legea oraino freskoa zen, 1905ekoa, eta zauri handiak utziak zituen. Elizaren ingurukoek ez zuten barkatzen fraideen eta seroren haizatzea edota ikastetxe giristinoen ixtea (Bascans eta Arbelbide, 2008). Hauteskunde-kanpaina hartaz *Eskualdunak* egiten zuen tratamendua, nahi ala ez, testuinguru horretan kokatu behar da.

Eskualduna astekaria bera zuri-gorrien zatiketa horren testuinguruan sortu zen, arrazoi politikoenkin. Louis Etcheverry politikari bonapartistak eratu zuen 1887an, Martial Berdoly hautagai «gorriak» sortu zuen *Le Réveil Basque* astekariari buru egiteko. 1889ko hauteskundeetan Etcheverry nagusitu zitzaion Berdolyri, baina 1893an kontrakoa gertatu zen. *Eskualduna* astekariak aitzina jarraitu zuen, baita Louis Etcheverry hil ondoan ere, eta beti ildo editorial berarekin segitu zuen.

Manex Hiriart-Urruti⁴ (Hazparne, 1859-Baiona, 1915) izan zen astekari hartako zuzendarien artean ospe handiena atxiki zuena. Astekaria zinez markatu zuen, haren artikulua sutsuekin (Altzibar, 2004; Intxausti, 1972; Lafitte, 1971b). *Eskualduna* sortu eta zenbait urtera hartu zuen zuzendaritza kargua, eta hil arte atxiki. Jean Ibarnegarai hauteskundeetara aurkeztu zen urtean, beraz, Hiriart-Urruti zen astekariaren zuzendari, editorialaren idazle, koordinatzaile eta besteen artikuluen zuzentzaile. Ahoan bilorik gabe erakusten zituen errerepublikazaleen kontrako aiherkundera, gorrien kontrako herra, laiotasuna indarrean ezartzearekin zuen desadostasuna eta abar. Garai hartan boterean ziren diputatuen eta agintarien kontra gogor mintzo zen. Frantzia «eri» zela eta «Gaineke Haren» laguntza behar ko zuela idatzi zuen. Diputatu batzuk ikusi zituen «lephoraino aserik egungo eguneko politika okaztagarriaz». Horrela idatzi zuen, Frantziako Gobernuak hauteskundeak iragarri orduko:

Egundaino ez dituztelarik ukan oraiko gizonek beren erhokeriez, gero-ta jasangaitzagoko zergez, eta gainerako egitate tzarrez, bazterrak orai dituzten baino aseagoak, halere oraino ez dugu zeren ametsik egin, bozkatze hunek atherako duela Frantzia gero-ta barnago sarthuz doan leize zola gabetik⁵.

Eskualduna astekaria politikoki erabat lerrokatua zela argi utzi dute orain arteko eta lan honen hasieran aipatutako ikerlanek. Astekaria eskuinekoa zen eta Errepublikaren kontrakoa. Jean Ibarnegarai izanik Louis Etcheverryren ildo politikoa jarraitzailea, ikerketa honek ez luke ekarpenik egingo, *Eskualdunak*

4. Jean Hiriart-Urruty, ofizialki.

5. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 13a, «Gure Gizonak» artikulua.

Ibarnegarai sostengatu zuela baieztatzea mugatuko bagina. Kontua da aztertzea nola eta zein kazetaritza-eredurekin egin zuen hori.

Ikerketa-galderak eta metodologia

Lan honetako ikerketa-galdera nagusia da *Eskualdunak* egiten zuena zenbateraino zen kazetaritza soila. Bi arlotan oinarritu ditugu gure ikerketa-galderak, biak eduki-azterketari lotuak. Batetik, ildo politikoa bera erakusten zuten elementuak aztertu ditugu, bestetik, artikuluen tonua. Horrela formulatu ditugu, beraz, gure ikerketa-galderak:

- Hauteskunde-kanpainari buruzko mezu alderdikaririk zabaltzen al zuen *Eskualduna* astekariak?
- Zenbateraino ematen zuen iritzia eta zenbateraino zen propaganda hutsa?

Galdera horiek ez daude kazetaritza eta propagandarekin lotuta, erretorika ere hunkitzen dute. Nahiz eta aztertu ditugun artikulua ikuspegi erretoriko batetik anitz sakondu daitezkeen, ikerketa honetan ez gara erretorikan sartuko, erretorikarekin zerikusirik zuzena duten adibide batzuk emango baditugu ere. Astekariak informazioa ematen zuen ala propaganda egiten zuen ikertzea da asmoa, eta horretarako eduki azterketaren metodologia erabiliko dugu.

Dozenaka lan badago kazetaritzaz eta propagandaz, are gehiago prentsez eta propagandaz. Kontua da lan horietan Historiako gertakari garrantzitsuetan izandako propagandak prentsan izan zuen oihartzuna aztertzeko dela gehienbat: Lehen Mundu Gerra, nazismoa edota Gerra Hotza dira ikerketarako gai jorienak. Kasu horietako propaganda estatu edo inperio batek zabaltzen duena litzateke. Guk ez dugu propaganda ikertuko ikuspegi horretatik: abiapuntua bera ere ez da propaganda, baizik eta kazetaritza. Hauteskunde-kanpaina batean astekari batek zuen jarrera ikertu nahi dugu, eta gure galdera da ea informatzen zuen ala propaganda egiten zuen. Alde horretatik, gure ikerlanera gehien hurbiltzen direnak Espainiako 1936ko hauteskundeei buruzkoak dira (Buisán Gutiérrez, 2002). Hurbiltzen dira bai garaiaren aldetik, bai ikuspuntuaren aldetik eta, lehenaren kasuan, baita aztertutako prentsa motaren aldetik ere (prentsa kristaua). XVIII. mendeko *Les Nouvelles Ecclésiastiques* egunkariak egiten zuen propaganda ere ikertu zuten Frantzia (Flandrois, Noirfontaine eta Foisil, 1991), diskurtso-analisiaren bidez eta hitz eta kontzeptuen agerrialdiaren maiztasuna aztertuz. Garaia gurea baino urrunagokoa da, baina egunkariaren erlijio-izaerak eta ikerketa egiteko hautatutako bideak hurbiltzen gaitu gure ikerketa-eremura. Eduki-azterketa egitean, batez ere azterketa kualitatiboari eman diogu lehentasuna, Laurece Bardin-en metodologiari jarraiki, azterketaren malgutasuna eta azterketa bakoitzak bere eredia asmatzea gomendatzen baitu (Bardin, 2007: 34).

Eredu horietatik abiatuta hautatu dugu lagina, zehaztu ditugu laginketa-unitateak eta finkatu ditugu erregistro-kategoriak. Ondoren, eduki-analisia kategoriara antolatuko dugu. Lagina hautatzeko erabili dugun irizpidea da Frantziako Gobernuak hauteskundeak iragarri ondoko zenbait hauteskundeetan egun arteko zenbakiak aztertzea. Beraz, ikertu ditugun zenbakiak hauek dira:

- 1914ko martxoaren 13a
- 1914ko martxoaren 20a
- 1914ko martxoaren 27a
- 1914ko apirilaren 3a
- 1914ko apirilaren 10a
- 1914ko apirilaren 17a
- 1914ko apirilaren 24a

Ondoren, kategoriak bi ardatz nagusiren inguruan antolatu ditugu: batetik, eduki politiko edo ideologikoari lotutakoak, hots, gaien araberakoak; bestetik, formari lotutakoak. Gaikako arloan sartu ditugun kategoriak hauek dira: errepublikazaleei buruzko kritika orokorrak, zergak, laborantza, eskola, erlijioari buruzko legeak. Formari lotutako ataletan sartu ditugun kategoriak dira: errepikapenak, aldeko artikulua, aurkako artikulua, hitz edo hitz multzo gutxiesleak, hitz edo hitz multzo laudatzaileak, irakurleari zuzendutakoak. Bigarren atal honetan azterketa kuantitatiboa ere egin dugu, baten edo bestearen aldeko edo kontrako hitz, parte edo artikulua kopuruak konparatu ahal izateko.

Emaitzak

Hauteskundearen iragarpen ofiziala egin zenetik hauteskunde egunera iragan ziren asteetan, *Eskualduna* bereziki barnealdeko hautesbarrutira begiratu zuen. Baionako hautesbarrutiaz ez zuen ia aipamen bat bera ere egin, salbu lehen egunean, hango «deputatu ditoken gorriena»⁶ aipatuz (Joseph Garatez ari zen). Gorago aipatu dugun bezala, horrek azalpen sinplea du: beste bi hautesbarrutietan ez zegoen lehiarik edo erronkarik. Aldiz, Ibarnegarai eta Gueraçague lehia-tzen ziren barrutian zegoen interes guztia. Bi ataletan landu ditugu emaitza horiek. Lehenik, astekariaren inpartzialtasuna nolakoa zen neurtuko dugu; eta gero, inplikazio formala.

Errepublikazaleen kontra

Eskualduna ikertu dutenek argi definitua dute astekari hori zuriaren alderdian, Errepublikaren kontrakoan eta erlijioaren aldean. Horren arabera, aurreikus zitekeen astekariak hautagai zuriaren alde egitea, hala nola Ibarnegaraiaren alde. Hurrengo lerroetan aztertuko dugu zein ziren astekariak Ibarnegaraiaren alde egiteko erabili zituen argudioak eta argudio horiek zabaltzeko mekanismoak.

Frantziako agintarien kontra ari zenean, bereziki zergen eta eskola libreen debekatzearen gaiak mintzo zen *Eskualduna*. Idazlea bera izan zitekeen agintarien kontra hala mintzo zena, eta beste batzuetan hautagaiaren hitzak errepikatuz ematen zuen errepublikazaleen kontrako iritzia. Deigarria da Larraineko berri-emaileak egin zuen kronika batean errepublikazaleak nola izendatzen zituen: «Rrepubliken handi horik, kampo lehenik. Rrepubliken handi horiez lagunturik khamberan sarthu nahi direnez, bidia hauts lehenik»⁷. Ironia eta trufa ageri-agerikoak dira, batetik «r» laukoitz hori ez daiteke trufa moduan besterik har,

6. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 13a.

7. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a.

bestetik «handi horik» bi aldiz segidan aipatuz (behin baizik ez izanik ere berdintsu izanen zen), dudarik gabe ironia erabiltzen du, handitasun hori mespretxuzkoa baita: «handiak direla uste dute, baina guk ez ditugu handi ikusten» erran nahi du.

Ibarnegarai bera ere mintzatu zen Errepublikaren «Liberté, Egalité, Fraternité» leloaren kontra Aldudeko bilkura publiko batean, eta haren hitzak ekarri zituen *Eskualdunak*, erranez ez zegoela libertaterik elizetan, ez eta ere eskoletan, eta ez zegoela anaitasunik. «Horra zer den oraiko Errepublika»⁸. Ibarnegarai errepublikazale zela, baina hiru lelo horiek gezur hutsak zirela idatzi zuen aste bat geroago Garindainekeo berri-emaileak.

Solas horiek biziki orokorrak eta sakontasun gutxikoak baziren ere, *Eskualduna* astekarian aipamen handiena izan zuen eztabaida (erlijioaren gaitik kanpo) irabazien gaineko zergak ezartzeari buruzkoa izan zen. Ibarnegarai zergak igotzearen kontrakoa zen. Haren ustez, aberatsek kanpoko erresumetako tituluak erosiko zituzten eta irabazien gaineko zergek «laborariak larrutuko» zituzketen. *Eskualdunak* bat egiten zuen Ibarnegarairen iritzi horrekin. Hain zuzen, bere hitzekin erran zuen zerga berri horren ezartzeaz pentsatzen zuena, Blaise Gueraçaguek Larrainen egin zuen bilkuraren bilduman⁹. Bilkura hartan, hautagai gorria anitz mintzatu omen zen zergez, baina *Eskualdunak* leporatu zion ez zuela zehaztu aberatsek beren ontasunak atzerrira eramanez zituztela eta zergak ordaindu beharko zituztenak ez aberats ez pobre zirenak zirela, besteak beste laborariak. Horrela idatzi zuen Larraineko berri-emaileak: «Gueraçague jaunak hanitch gaiza erran du. Bena chehetarzun horik ez zaitzo gogoala jin». Beste asteetan ere aipatu zuen zergen gaia, *Eskualdunak*.

Laborariei zuzentzen zien mezua, hein handi batez; horregatik aipatzen zituen zergek laborariengan ukan zituzketen ondorioak. Ildo beretik, eta Larraineko bilkurarekin jarraituz, laborarien diru-laguntzak ez zirela hazi kritikatu zuen idazleak; alderantziz, enplegatuenak hazi zirela salatu zuen, hori laborarien bizkar egin zela zehaztuz. 30 urte lehenago, Frantzia 283.000 enplegatu zirela eta hauteskunde-kanpaina garai hartan 917.000 zehaztu zuen. Hori kritikatzeko zuen: «Nork dutu phakatzen enplegatu horik orro?».

Eskola giristinoari buruzko legea ere kritikatu zuen *Eskualdunak*, ironiaz beterik. Gueraçaguek Larrainen egin zuen bilkuratik hartua da pasarte hau ere:

Larraintar gaizoak, ez bazidie kountent eskola laikoaz, igorten badeizie Morizot-en ariako errejent edo errejentsa zombait, egizie eskola libro bat.

Bena legarren bidez behar dukezie fornitu mila libera; handik aitzina eskolategiak, liburiak, nahi ez dutuzien liburiak ere bai, paper, luma, sugei eta holako.

Horik oro phakaturik, libro zidie, libro, zien sakolatik eskola... libro baten egiteko, eskola hortako gastien egarteko, eskola hortarat zien haurren igorteko.

Hori beita: nahi ez dukezien eskola baten phakatzera bortchatu, eta nahi dukezien eskola baten phakatzeko libro.

Libro! Libro! Libro!

Gueraçague jaunari ez zaio balio izan chehetarzun horien emaitia.

6. *Eskualduna*, 8. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 27a.

9. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a.

Pasarte horretan ironia agerikoa da. Eskola giristinoen eta laikoaren arteko eztabaidari alde ekonomikoa gehitu zion, eta horrekin alde ideologiko hutsari beste ekarpen bat egin. Moltsari hutsaldi eder bat eginez dagoen askatasuna ez dela zinezko askatasuna aditzera eman nahi zuen, modu eraginkor batean, «libro» hitza behin eta berriz errepikatuz, oihu bat zirudien artikulua batean.

Funtsean, eskola giristinoaren eztabaidaren gibelean, Estatuaren eta Elizaren bereizte-legearen eztabaida dago. Zergen gaia motz gelditu zen, erlijioaren eztabaidaren ondoan. Ez, *Eskualduna* ez zen hain mamitsua izan gai politiko gordinetan. Eztabaida politikoaren hari nagusia erlijioak hartzen zuen, gisa batera edo bestera. Komeni da zehaztea, hauteskunde-kanpaina haren gai nagusia ere erlijioaren ingurukoa zela (Micheu-Puyou, 1965). Beraz, *Eskualduna* bete-betean sartu zen eztabaida hartan, bere eremua izanik.

Eskualdunarentzat informazio garrantzitsua zen jakitea ea hautagaia erlijioaren aldekoa ala aurkakoa zen. Astez aste zetorren Gueraçague erlijioaren alde ote zen argitzeko eztabaida. *Eskualduna* kezkatua zen, Gueraçague-ren aldekoek ziotelako gorrien hautagaia «erlijioaren aldekoa dela, ez dela batere administrazioaren, ez gobernamentu tzar hunen gizona». Baina aldi berean gobernu horren sostengua zuela ohartarazi zuen aldizkari giristinoak. Beraz, ez zela sinesgarria gehitu zuen: «Boz-emailen trompatzeko, goraki orori mintzo, ez dela, ez dela, ez, ez, segurki eta halere, ez dela hura gobernamentuko gizona? Burdinazkoa behar du kopeta Guéraçague-k, eta kontzientzia zertazkoa othe?»¹⁰. Hor, ironia eta trufa ez dira eskas. Esaldi bizia da, ahozko elkarrizketa batekoa bezalakoa, hautagai hark erraten zuena zenbateraino ez zuen sinesten erakusteko. Gero are argikiago erran zuen «irringarizko gezurra» zela eta Gueraçagueren aldekoak jendeaz trufatzen ari zirela: «Trufak sarthuko zaizkotela, hitz diotegu».

Aste bat geroago ere (martxoaren 27a) Gueraçaguek aurpegi bikoitza zuela salatu zuen *Eskualdunak*, ironia kutsu batekin. Halaber, apirilaren 3ko Larraineko artikuluan, erlijioa errespetatzen zuela erratean, «zer kopeta!» erantzun zuen *Eskualdunak*. Aste bereko «Ahatze behar ez dena» artikuluan oroitarazi zuen Gueraçaguek zer arau bozkatu zuen apezpikutegia eta abar hesteko.

Eskualdunaren astez asteko lana zen erakustea Gueraçague ez zela aditzera eman nahi zuen bezain giristinoekiko errespetuzko gizona. Donibane Garazin eztabaida publiko bat izan zen bi hautagaien artean. *Eskualdunak* hala aipatu zituen Ibarnegarainen hitzak:

Erran diezu bai erlisioniain kontra, bai eskola girichtinoen kontra egin gogo diela indar guzia, eta uste diela gorri guziek emain dakoten bere boza: kaseta gorri delakoak ziozun errepublikanoen cheden sostengatzaile deputatu hauta izanen dela Guéraçague. Horra gure gizona nun zaukun azkenian garbiki mintzo. Barkochen erran dizu libertate on guzien adichkidea dela; kasik apez bat bezein girichtino ziaukazun bere buria. Ohartu bide duzu gezur handi horiek nihor ez dutela enganatzen¹¹.

10. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 20a.

11. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 27a

Ageri da *Eskualdunak* bazuela kezka bat erlijioaren alde eta kontra agertze horrekin. Gueraçague, gorrien hautagaia izanik ere, erlijioarekiko irekia agertzea ez zitzaion gustatzen astekari euskaldunari. *Eskualdunaren* arabera, Gueraçaguek erabiltzen zuen argumentuetarik bat zen harekin lasai egon zitezkeela, ez zuela erlijioaren kontrako neurririk hartuko. Pentsa daiteke hori hauteskunde-taktika bat zela, giristinotasuna azkar zen eremu batean erlijioaren aldekoa zela ez bazuen erraten edo erlijioaren kontrakoa zela aitortzen bazuen, boz anitz gal zezakeelako. Gauzak ezin dira hala sinplifikatu, eta nahiz eta *Eskualdunak* baieztatu Gueraçague ez zela giristinoa edo ez «egiazkoa» —alderantziz, erlijioaren kontra zela eta hori ukatu nahi zuela—, horrek berak ez du bermatzen *Eskualdunak* arrazoi zuenik.

Eskualdunak behin eta berriz errepikatu eta azpimarratu zituen indarrean zegoen gobernuak erlijioaren kontra hartu neurriak. Larraineko bilkuratik landako artikuluan Gueraçaguek erran ez zuena baina «erran zezakeena» idatziz, *Eskualdunak* gogora ekarri zituen zenbait neurri, eta Gueraçague neurri haien aldekoa zela erran, haren hitzetan ariko balitz bezala:

Rrepublikein beniz, hounhartzen dutut goure Rrepublika handiak egin dutian legiak oro.

Hounhartzen dut fraide eta serorak Frantzia-tik kampo ezari dutian legia. Are ta haien ondariak zombait miliou phakatzen dutuzie zien sakolatik.

Bai, Larraintar maitiak, bai; egizie nitarik deputatu bat eta bi lege horik chutik edukiren dutut, Rrepublika-k eginik beitera, eta rrepublikein beniz¹².

Serorak eta fraideak beren komentuetatik haizatzea maiz aipatu zuen astekari horrek. Hitz horiekin aipatu zuen, Mauleko artikuluan, martxoaren 20an:

Eta ordian, Frantzian ezin biziz bestetarat joan diren fraide eta serorak, katolikoek beren khostuz eraiki eskola-tegi eta seminarioetarik kampo ezari dutien aphezgeiak, eliza borthak jauz-erazi nahi ez zutien soldado aitzindari hautse dutienak, horik oro zer dira?

Beste batean, apezpikuaren gutuna argitaratu zuen *Eskualdunak*. Gutun haren pasarte batzuek argi diote zer haserre zuten gobernuko eta legebiltzarreko kargudunen kontra.

Nork ditu egiten lege tzarrak? Nork eman du Jainkoa legeetarik, eskoletarik, armadetarik, eritegietarik kampo? Deputatuek eta zenaturrek.

Nork igorri ditu herritik kampo hainbertze fraide eta serora, hetsi heien etcheak eta eskolak? Nork debekatu du katichimaren erakastea eta, katichimaren orde, ezarri eskolan liburun tzar batzu? Nork egin du ezkontza hautsi nahi duen legea? Deputatuek eta zenaturrek.

Nork berechi ditu elgarretarik Eliza eta Gobernamentua? Nork khendu du erlisionearentzat emaiten zen dirua, aphezpikuen eta aphezen pagak? Nork ebatsi ditu semenarioak, aphezpikutegiak, aphez-etcheak? Nork bahitu ditu elizetako ontasunak, hilek berentzat utzirikako mezen dirua bera? Deputatuek eta zenaturrek¹³.

12. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a.

13. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a.

Horiek adibide batzuk baizik ez dira. Aste haietan zehar, serorei eta fraideei egin kaltea, edota senar-emazteen bereizte-legea, eskola giristinoen kontrako neurriak eta abar behin eta berriz errepikatu zituen *Eskualdunak*. Hori zen hauteskunde-kanpainako gai nagusia. Hauteskunde-kanpaina bat gai politikoen inguruan egiten bada, urte hartakoa erlijioaren inguruan egin zen, nagusiki, eta *Eskualdunaren* zutabeetan segurik, ia hori baizik ez zen izan zinez barnatu zuten gaia. *Eskualdunaren* kezka politiko ia bakarra erlijioa zen. Baina Hiriart-Urrutik ez zuen bere gain hartu nahi bi sailen nahaste hori:

Politika eta Erlisioea bi gauza direla elgarretarik berechak, erranen dautzue gure etsaiek; egiago erran lezakete erran balezate hala beharrak, berech beharrak, aspaldiko urthe hautan nahasiak direla elgarrekin.

Eta nahasiak, elgarrekin gerlan ezarriak, nork? Guk ala gure etsaiek?

Gehiago dena, beren politika tzar guzia, aspalditik hunateko politika bakarra erlisionearen herra, erlisioneari ahal duten kalte guziaren egitea dutenak zaitzue mintzo erlisionea politikatik berechteaz¹⁴.

Laburbilduz, *Eskualdunak* idatzi zituen testuen mezu nagusia zen gogoraraztea errepublikazaleek Elizari eta eskola kristauei eskubideak murriztu zizkietela eta salatzea errepublikazale horiek berek jende xehearen zergak igoko zituztela.

Irakurleei deia

Baina erlijioaren aldeko mezura edota errepublikazaleen kontrako artikuluetara mugatu izan balitz *Eskualdunaren* solasa, beharbada azterketa honek ez zuen hainbesteko interesik izanen. Ororen buru, astekari batek bere ideia politikoen defentsa egitea bera ez da gauza harrigarria, eta *Eskualduna* zurien aldekoa zela ere ez da gauza berria. Kanpaina horretako artikulua irakurtzean, deigarriagoa egiten da *Eskualdunak* ez zuela hainbeste argumentu ezartzen mahai gainean, eta, aldiz, gauza bera behin eta berriz errepikatuz osatzen zuela bere diskurtsoa. Hain zuzen, hauteskunde-denborako artikulua irakurriz, laster ohart gaitzke beti mezu bera errepikatzen ari zela *Eskualduna*. Hots, 1914ko hauteskunde-kanpainan gorago aipatu ideia sinple horiek guztiak etengabe datoz *Eskualdunara*.

Apirilaren 3an, 10ean eta 17an, *Eskualdunaren* erdia baino gehiago okupatzen zuten kanpainari buruzko berriek. Gehienetan, beti gauza bera zen. Gueraçague eta Ibarregarai herriz herri ibili ziren bilkura publikoak egiten, eta herri anitzetako bilkuren bildumak agertu ziren gero *Eskualdunan*, bata bestearen ondotik. Pentsa daitekeen bezala, hautagai horiek gauza bertsuak erraten zituzten leku batean eta bestean, eta beraz, artikuluen bildumetan ere gauza bertsuak irakur zitezkeen.

Baina, azpimarragarriena da zenbait artikulua astero-astero errepikatzen zirela, hitzez hitz, hala nola «Ahatze behar ez dena» edota «Gezurrer eta elhe ederrer arrapostu». Bi artikulua horiek puntuz puntu osatuak ziren, Zuberoako sailean, eta Frantziako Gobernuak hartu neurriak oroitarazten zituzten, azpimarratzeko ez zela gorrien alde bozkatu behar. Zenbait astez, artikulua horiek berak bi aldiz agertzen ziren, zubereraz eta lapurteraz. Errepikatze horiek guztiak, eta ondoko lerroetan aipatuko ditugunek, halako buru-galkatze kutsu bat badute.

14. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a.

Engoitik argi gelditu da *Eskualdunak* Ibarnegarairen aldeko kanpaina egin zuela. Funtsean, artikulua bateko baino gehiagoko azken hitza «Biba Ybarnégaray» izan zen. Hala ere, artikuluen zenbaketa egitean, ohargarri da artikulua gehienak ez zirela Ibarnegarai ohoratzeke idatziak, baizik eta Gueraçagueren kontra. Apirilko zenbakietan bereziki, *Eskualduna* astekariaren erdia edo gehiago hartzen zuten hauteskunderen buruzko berriek; editorialez eta berri orokorrez gain, herrietako berriek leku handia ematen zieten hauteskunde horiei, bereziki hautagaien bilkura publikoen bildumekin.

Neurketa bat eginik, ateratzen den ondorioa da orotara bederatzi artikulutan egin zela Ibarnegarairen aldeko deia, eta hemeretzi artikulua zirela Gueraçagueren kontrakoak. Hots, onartutzat ematen badugu *Eskualdunaren* hautagaia Ibarnegarai zela eta aurkaria Gueraçague, neurketa horrek erakusten du anitzez gehiago egin zutela aurkariaren aurka, beren hautagaiaren alde baino.

Ez dugu lekurik informazio-bilkuren bildumak barnatzeko, eta funtsean, denek gauza bertsua diote, baina gorago aipatu ditugunez gain, besteetan ere ageri da bilduma horiek Gueraçagueren kontra egiteko erabiltzen zituela *Eskualdunak*. Hona adibide batzuk:

Gueraçague jaunak Larrañen eman dian peredikiari buruz egin dutien esku zaparten herotza ez da goure gana heltu¹⁵.

Gueraçague joan da hotz hotza, ikhousirik etziala egiteko handirik Mithikilen¹⁶.

Bilkhuran ziren Gamearrek opinione charra hartu die Guéraçague jaunaren beithan¹⁷.

Ez duk hori goure gizouna, ez ditit horrek goure botzak ukhnen¹⁸.

Guéraçague herritarra dugu; bena ez du ukhnen goure botzik haboro, ez beitu goure egiazko estimurik¹⁹.

Boz-emalek apirilaren 26an igorriko dute nahi luken baino zalhukiago oraino, han harat... pirrikitan²⁰.

Sei aipamen horiek adibide batzuk baizik ez dira, erakusteko nola hautagai baten kontrako mezuak nagusitzen zaizkien beste hautagaiaren aldeko mezuei.

Eta hori hitzetan ere ageri da, egin dugun azterketa terminologikoaren arabera. Hori zer hitz erabiltzen zuen gorriak aipatzeko: «gorri faltsu hoik oro», «gorri hutsa», «funts gabea», «ez deusa», «barne egosi tzar», «papo gorri», «bazter nahasle», «ahur bat chanfarin», «beti faltsu», «osoki zozo», «zer ihiziak», «maltzur», «inganazale», «diren bezalako barne egosi tzarrak», «etsai madarikatu», «alemanak baino alemanago, alimaleago», «Judas», «gorri mina»...

15. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a. Larraineko artikulua.

16. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a. Mithikileko artikulua.

17. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a. Akamarreko artikulua.

18. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a. Lexantzuko artikulua.

19. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 20a. Donapaleuko artikulua.

20. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a. Donibane Garaziko artikulua.

Zerrenda horretan ageri dira hitz batzuk politikari gorriak tontotzat jotzeko, gaitasunik gabeko jende gisa aurkezteko. Horiek liriateke hitz eztiak. Beste batzuk gogorxeagoak dira, non maltzurak eta faltsuak direla erakutsi nahi zuten. Badira hitz anitzez gogorrak ere, eta azpimarra daiteke alemanekin egin zuen konparaketa. Hilabete gutxiren buruan lehertu zen Lehen Mundu Gerra eta garai hartan hautagai gorriak berak Frantziaren etsaia baino txarragozat jotzea zinez gogorra zen. Judasen erreferentziak behin baino gehiagotan agertu ziren, azaletik edo sakonki. *Eskualdunaren* irakurleria giristinoak ongi ezagutzen zuen Judas nor zen, eta horrelako hitz bat iraingarria zela dudarik ez da.

Hitz horiek ez dute deus ikustekorik argumentu politikoekin, baina eraginkorrak izan zitezkeen. Merezi du konparatzea hautagai zurientzat zer hitz erabiltzen zuten: «erne ta bipila», «gure adichkidea», «gogo beroko bezain buru sanho eta chede hobeneko», «haren elhe gozo eta zentzu handikoak», «egundaino bezen on», «gazte on, argitia bezen chehea», «hain baita aditzeko gochoa, bere mintzo ozen, ahopaldi eder eta eskuara garbiarekin»...

Hots, hitz gaiztoak aurkariarentzat erabiltzen zituzten bezain argi erabiltzen zituzten hitz goxoak beren hautagaiarentzat.

Eskualduna astekaria giristinoek eta elizgizonek idatzia zen, eta idazten zutenek ez zuten dudarik irakurleak giristinoak zirela; edo, bederen, irakurleak hala balira bezala idazten zuten. Gorago aipatu bezala, astekari horrek garrantzi handia ematen zion hautagaiak erlijioarengan zuten jarrerari. Hori nagusitzen zen eztabaida politikoan. Lehentasuna giristinotasunak zeukan. Beraz, irakurleei, boz-emaile eta giristino gisa mintzo zitzaizen artikulu anitzetan. Hona adibide pare bat:

Ez utz arren ziren buriak inganatzera, adiskide maitiak; mezan ibiltzen zidenian bezala egon zitie khiristi zien botzak emaiten dutuzien egunian ere²¹

Boz-emaileak, gauden, chuhurra badugu, gizonki, giristinoki, gure buruaren, gure bozaren jabe, zuzenari emaiteko. Zuzen hura da hemen Guichenné, eta ez bertze hori²².

Lehenbiziko esaldia, laborari baten gutunaren bukaeratik hartua da. Giristino gisa bozkatzeko deia egin zuen. Giristinoaren eginbidea mezara joatea edota otoitz egitea den bezala, idazle horrek beste eginbide bat eskatzen zion: bozkatzea zurien hautagaiaren alde. Fededunen diziplinan eta Elizarenganako leialtasunean fidatuz, *Eskualdunako* idazleek leialtasun horren barnean sartu zuten zurien alde bozkatzea joatea. Bozkatzea ez zen eginbide politikoa, baizik eta eginbide kristaua. Irakurleei giristino gisa dei egiten zietenean, arrazoi hori arrazoi politikoak baino konbentzitzeko eraginkorragoa zela pentsatuz egin bide zuten.

Eskualdunaren artikuluak ez ziren mugatzen hautagai baten alde eta bestearen kontra mintzatzera. Hori ez balitz aski irakurleen konbentzitzeko, behin eta berriz dei zuzena edo zeharkako deia egin zien irakurleei, bozkatzea joan zitezen, eta Guichennéren edo Ibarnegaraireren alde bozka zezaten. Astero baziren bi eta lau artikulu bitartean irakurleei zeharkako deia egiteko.

21. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 27a. Zuberoako sailean, laborari baten gutuna.

22. *Eskualduna*, 1914ko martxoaren 27a.

Gueraçagueren bilkuren bildumetan ematen zuten informazioa zen ez zuela entzuleen txalorik bildu, herri hartan ez zuela sostengurik ukan.

Deputatu-geiaren elhe ederrari ez beitzien arauz aski esku zaparta egiten, nahiz gisala jaun merak señaia emaiten zian noiz merechi zutian, bilkhuraren urhentzian goure merattoak galthegein du pheredikariaren elhiak aprobatzen zutien orori eta harentzat botzak eman nahi zutien orori besoak eraiki litzen! Bena gizontto zombaiti arhampa lothu zaie... edo bestelan igaran die ez ziela behar gezurrian zinik egin goure mera beroari plazer egitia gatik²³.

Holako pasarteak maiz agertu ziren *Eskualduna* astekarian. Ez ziren zuzenean Gueraçagueren alde ez bozkatzeko deiak, baina erakutsi nahi zuten hautagai hark ez zuela inor alde, ondoko hiru pasarte hauetan bezala:

Gueraçague joan da hotz hotza, ikhousirik etziala egiteko handirik Mithikilen²⁴.

Bilkhuran ziren Gamearrek opinione charra hartu die Guéraçague jaunaren beithan²⁵.

Bilkuratik atera den baten hitzak: «Ez duk hori goure gizouna, ez ditit horrek goure botzak ukhenen»²⁶.

Gisa horretako artikulua maiz agertu ziren aste haietan, *Eskualdunan*. Horiek adibide bakar batzuk baizik ez dira. Ez ziren irakurleei egiten zitzaizkien dei zuzenak, baina lerroen gibeletik ageri zen *jende onak* ez zuela haien alde bozkatzeko, eta nolaz *Eskualdunako* irakurleria *jende on* horietarik zen, zeharka erakusten zitzaien zein zen haien eginbidea.

Dena den, zeharkako deia ez bazen aski, dei zuzenak ere ez ziren eskas. Horren adibide garbiena da astero agertu zen «Ahatze behar ez dena» artikulua:

Ezin du fededun batek ahazten bere botza kontzientziaz erlisioniaren aldekoari eman behar diala; kontzientzia handizki kolpatzen diala erlisioniaren kontrekoa laguntuz.

Ezin du Uskaldun fededuank ahazten norekin dabilan. Gueraçague jauna; blokar, kargudun eta erlisioniaren etsaiak direla haren althe burhagertzen; berak erran edo ez, haiekilankoa dela, haien uduriko, haien gogo eta chede bereko.

Hori ez da adibide bakarra, gehiago ere badira, gehienak irakurleei fededun gisa zuzenduz idatziak. Kazetaritzatik eta eztabaida politikotik urrun gelditzen da estilo hori. Irakurleei bozkatzera joateko dei zuzena egiten zaienean, ez da informazio edo argitze- eta argumentatze-lanik egiten. Agintzen da. Eta hori da *Eskualdunak* egin zuena hauteskunde-kanpaina hartan.

Ondorioa: kazetaritza gutxi, propaganda anitz

Zergei buruz ematen zituen xehetasunak laborarien ikuspuntutik garatzea ez zen garrantzirik gabea. Aitortu behar da irakurleria zati handiena laboraria baldin

23. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 3a, Alozeko artikulua.

24. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a, Mithikileko artikulua.

25. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a, Akamarreko bisita.

26. *Eskualduna*, 1914ko apirilaren 10a, Lexantzüko artikulua.

bazen, hurbiltasunaren izenean, normala zela laborantzako gaiei interes berezia ezartzea. Baina, bestetik, horren gibelean ikusi behar da ere Frantziako Gobernuak indarrean ezarri nahi zituen neurriek laborariei kalte egingen zieten errateko interesa: laborariak gorriek kudeatzen zuten gobernuaren kontra ezarri nahi zituen, eta hautagai zuriaren alde bozka zezaten konbentzitu.

Zergen gaiarekin edota eskola libreen gaiarekin, *Eskualdunak* boterean zegoen gobernuarekiko eta haren aldeko hautetsiekiko zuen desadostasuna argi eta garbi utzi zuen, ez baitzen ados zerga berri harekin, ez eta haurra eskola giristinoan ezartzeagatik pagatu behar izatearekin ere. Alde horretatik, politikoki inplikatu zen, errepublikazaleen kontra, haien legeek jende xehearen moltsan kalteak eragiten zituztela argudiatuz.

Ibarnegarairi (eta beraz haren alde zegoen *Eskualdunari*) ez zetorkion ongi bozemaileek pentsatzea Gueraçague ez zela pertsona kaltegarria erlijioarentzat. Beraz, aurkakoa behin eta berriz azpimarratu behar zuten, erlijioaren kontrako neurrien mamua astinduz, eta erakutsiz Gueraçague neurri haien sustatzaileen sostenguarekin aurkezten zela.

Ororen buru, hauteskunde-kanpainako eztabaida biziki sutsua baldin bazen ere, biziki sinplea zen. Elizaren eta Estatuaren arteko gatazkak elikatzen zuen dena, *Eskualdunaren* lerroetan. Horrek elikatzen zuen, baita ere, errepublikazaleen kontrako aiherkundea, trufa eta boterean zirenen lege-proposamenen kontrakotasuna, izan zergen ezartzea edota eskola libroei buruzkoa. Lehentasuna Elizak lehen zituen baldintza onak berreskuratzea zen, *Eskualduna* egiten zutenen luman. Horregatik, biziki inplikatu zen hauteskunde-kanpaina hartan, *Eskualduna* idazten zutenak elizgizonak izanik, barne-barnetik bizi baitzuten gatazka hura, eta haien estatutuan eragin handia baitzuen hauteskundeak alde batek ala beste aldeak irabazteak.

Artikulu gehiago ziren Gueraçagueren kontrakoak. Horrek aditzera eman dezake lehentasuna ez zela boterea hartzea zerbait lortzeko, gauza batzuk aitzinarazteko, baizik eta ordu arte boterean zirenak kanporatzea zela *Eskualdunak* nahi zuena, Elizak lehen zituen abantailak berreskuratzeke.

Baina hauteskundeak irabazteko argudio nagusi gisa besteen kontra joatea, bestea baztertu nahi izatea, ez da berez, argudio politiko biziki aberatsa. Gehiago du propagandatik, eztabaida politikotik baino. Bat laudatuz baino gehiago mobiliza daitezke hautesleak bestea madarikatuz, eta hori zuen egin *Eskualdunak*: bestea mamu baten gisan aurkeztu.

Hor daukagu aitzinekoaren ifrentzua. Hau ez da politika; propaganda da. Eta urrunago joanez, ausart gaitzke erratera —are gehiago, jakinez elizgizonen testuak zirela— infernuaren eta zeruaren parekatze bat ikusten dela hor. Infernuan dena txarra, zeruan dena ona. Gorriek (hain zuzen, «gorriak», infernukoak) dena txarra dute, dena gaiztoa; zuriek dena ona dute. Hots, *Eskualdunako* idazleek, lerroen artean, Gueraçague eta haren aldekoak deabruen pare ezarri zituzten, eta Ibarnegarai eta Guichenné jainkotu. Diskurtso «politikoan» ere erlijioari ematen zioten garrantzia ikusirik, pertsona horiek aipatzeko manerarekin ere erlijioaren karga eta eragina ageri dira.

Hauteskunde-kanpaina berezia izan zen 1914ko udaberrian, Ipar Euskal Herriarentzat, orduan irabazi baitzituen hauteskundeak Jean Ibarregarai gerora ospetsu izanen zenak. *Eskualdunak* anitz idatzi zuen kanpaina hartan zehar, eta laster ohartzen gara zein zen orduko gai nagusia: Estatuaren eta Elizaren bereiztelegea, haren ondorioak eta erlijioaren boterearen eta Elizaren eraginaren ahultzea. *Eskualdunak* erlijioaren defentsa sutsua egin nahi zuen, galdua berreskuratzeko eta oraino ez gauza gehiago galtzeko. Gai hori ongi islatu zen *Eskualdunaren* zutabeetan. Beste gaiak aipamen apalagoa izan zuten: irabazien gaineko zergak aipatu bazituzten ere, ez zen konparatzerik erlijioaren ingurukoari eman zioten lekuarekin; beste gairik baldin bazen, haiek ez zuten islarik izan *Eskualdunan*.

Baina eztabaida politikoez lerro anitz betetzeak ez du erran nahi informazio eta argibide anitz eman zutenik. Ez. Idatzi, bai, anitz idatzi zuten. Baina astetik astera eta artikulutik artikulura, beti mezu bera zerabilten. Kanpaina bukatzerako, gauza bera behin eta berriz irakurri izanaren sentsazioa gelditzen zen. Ideia berak errepikatu eta errepikatu ibiltzeak erran nahi du, funtsean, astekariaren eduki informatiboa ez zela biziki aberatsa. Baina, hori baino gehiago, buru-galkatzearen itxura gehiago ematen zuen. Ideia bera behin eta berriz errepikatuz, ez zen irakurlea konbentzitzea bilatzen, baizik eta mezu hori buruan ongi sarraraztea.

Kazetaritzari gaina hartu zion propagandak. Beti mezu bera errepikatzea propaganda egitea da. Horrez gain, tinta gehiago isuri zuten hautagai gorrien eta gorriek kudeatutako Frantziako gobernuaren kontra, ez eta hautagai zurien balioa goresten. Gisa berean, hautagai gorrien izendatzeko erabiltzen zituzten hitzak edota hautagai zuriak izendatzekoak ere propagandaren barne dira, hitz negatiboak batzuentzat, hitz baikorrak besteentzat. Propaganda edo doktrinatzearen beste ezaugarria da, irakurleei batere disimulurik gabe egiten zieten deia, zurien hautagaien alde bozka zezaten. Hauteskundeetan giristino gisa jokatzeko deiak balio politikoa kentzen zion hauteskunde-kanpainari, eta herritartasun eta ekintza demokratikoaren ezaugarria ere kentzen zion bozkatzeko ekintzari.

Bibliografia

- Altzibar, X. (2004): "Sarrera", in X. Altzibar (arg.), *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, Labayru ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo
- , (2005): "Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?", in *Nerekin yaio nun. Txillardegiri Omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 59-82, berreskuratua sarean: <www.euskaltzaindia.net>.
- Ames, W. eta Olson, S. (1963): "Washingtons Political Press and the Election of 1824", *Journalism Quarterly*, **40(3)**, 343-350.
- Bardin, L. (2007): *L'analyse de contenu* [lehen edizioa: 1977], Presses universitaires de France, Paris.
- Bascans, A. eta Arbelbide, X. (2008): "Uztaritzeko seroren eskolen hestea", in *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 31-37.
- Bidegain, E. (2009): *Gerla Handia, muga sakona*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- , (2010): "Quand les Basques écrivait «Biba Frantzia!»", in *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*, Rennes 2 Université Haute Bretagne, Rennes.

- Bilbao, I. (d. g.): *Jean Ybarnégaray* (mémoire master histoire contemporain), UPPA.
- Borda, B. (1984): *Le journal «Eskualduna» et la guerre de 1914-1918* [tesina-memoria, zuz.: Michel Papy], Université de Pau et des Pays de l'Adour.
- Buisán Gutiérrez, M. (2002): "Las elecciones españolas de 1936 en la prensa católica francesa: información o propaganda", in *Del periódico a la Sociedad de la Información*, 159-166.
- Camino, I. (1994). "Hitzaurrea", in I. Camino (arg.), *Gontzetarik jalgiaziak*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- Cuzacq, R. (1952): *Les Elections legislatives a Bayonne et au Pays basque de 1898 a 1914: radicalisme bayonnais et catholicisme basque* (libk. 1-1), J. Lacoste, Mont-de-Marsan, Frantzia.
- Dahlem, S. eta Mathes, R. (1989): "Campaign Issues in Political Strategies and Press Coverage - the Rental Law Conflict in the Election Campaign in the Federal Republic-of-Germany", *Politische Vierteljahresschrift*, **30(4)**, 655-673.
- Farré, J. (1999): "La esfera pública, comunicación política y prensa diaria: La escenificación periodística de la campaña de las elecciones al Parlamento", *Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria*, **7**, 5.
- Flandrois, I.; Noirfontaine, F. D. eta Foisil, M. (1991): "Un journal de polémique et de propagande. Les nouvelles Ecclésiastiques", *Histoire, économie et société*, **10(3)**, 399-420, doi:10.3406/hes.1991.1611.
- Giraudou, C. eta Poirrier, P. (2007): *La presse et la vie politique locale: les élections municipales a Dijon a travers le Bien public et les Depeches (1971-1995)* (libk. 1-1), S.I., Frantzia.
- Intxausti, J. (1972): "Hitzaurrea", in *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Arantzazu.
- Isnenghi, M. (1985): "From the «corriere Della Sera» to «mattino» + Italian Election Coverage", *Belfagor*, **40(4)**, 457-465.
- Lafitte, P. (1971a): "Eskual astekarien ixtorioa", *Gure Herria Almanaka*, **32**.
- , (1971b): "Sarrera", in P. Lafitte (arg.), *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin.
- Menou, B. (1972): *Jean Ybarnégaray*, Mémoire IEP, Bordele.
- Micheu-Puyou, J. (1965): *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*, Librairie générale de droit et de jurisprudence, Paris.
- Romay, E. T. eta González, F. B. (2007): "Información, opinión y propaganda en la prensa del sur de Galicia durante las elecciones de la II República 1936 (I) en Pontevedra: Faro de Vigo", in *La Comunicación durante la Segunda República y la Guerra Civil*, 337-355.
- Videgain, E. (2012): *Lehen Mundu Gerra 'Eskualduna' astekarian* [doktorego-tesia; zuz.: Charles Videgain, Josu Chueca], Bordeaux 3, EHU, Baiona.

